



BARREN
TOKIKOM

Marten da Elgoibarko teknologia





AITOR KORTAZAR (Elgoibar, 21 urte) Mondragon Goi Eskola Politeknikoan Ingeniaritza Mekanikoko 4. maila ikasten ari da eta Gradu Bukaerako Lana (GBL) bertako ikerketa lerro batean egiten dihardu.

“PBL metodologia oso onuragarria da”

■ **Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?**

Ikasketak Elgoibarren egin nituen eta Batxilergoa adar zientifiko teknologikotik ikasi nuen, diseinua, fisika eta teknologia ikasgaiak interesgarriak iruditzen zitzaizkidalako. Herriko eskubaloi taldean jokatzeko dut eta eskalada ere asko gustatzen zait.

■ **Zergatik aukeratu zenuen Ingeniaritza Mekanikoa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Hasiera batean, ez nekien zein bide hartu, baina diseinu eta muntaketa mundua asko gustatzen zitzaidan. Ondorioz, ate-ireki desberdinetara joan ostean, Ingeniaritza Mekanikoa egitea gustuko izango nuela pentsatu nuen. Aukera desberdinak ikusi ondoren, Mondragon Unibertsitatea aukeratzearen arrazoia izan zen hauek eskaintzen duten proiektuetan oinarritutako ikasketa metodologia; proiektu hauen bidez, aurretik ikasitakoa asko barneratzea eta gauza berriak ikastea lortzen delako.

■ **Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Bizitzen ari naizen esperientzia oso positiboa dela esango nuke, bai arlo pertsonalean, baita akademikoan ere. Nire ikaskideekin batera hainbat aisialdi ekintzatan eta unibertsitateko proiektu ezberdinetan parte hartzeko aukera izan dut eta horrek elkarren artean geneukan harremana hobetzera eraman gaitu.

■ **Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Ikasle guztiek bezala, gorabehera batzuk izan ditut graduan zehar. Kontua da lasai-lasai hasi nuela kurtsoa eta, konturatu orduko, lehen azterketan nengoen. Honek, momentuan nengoen egoeraz ohartarazi ninduen eta nire ikaste-ohiturak aldatzea eragin zuen. Bestalde, arantza bat gelditu zitzaidan hirugarren mailan. Orduan gradu osoko proiekturik handiena egiten da, GBL-a kontuan hartu barik, noski. Izan ere, kurtso osoko proiektua da, azaroan

hasi eta ekainean amaitzen delako. Gure kasuan, automatikoki tolestu eta irekiko zen zubi bat egin behar genuen, baina pandemiaren ondorioz, ezin izan genuen honen eraikuntza amaitu. Hori guztia kontuan izanda, bizi izandako esperientzia ona izan dela esango nuke.

■ **Nola definituko zenuke Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

PBL metodologia oso onuragarria da ikasleentzat. Metodologia mota honek duen gauza garrantzitsuenetarikoa bat eskaintzen duen praktikotasuna da. Metodologia honekin, seihilekoan ikasitako guztia proiektu batean biltzen da, eta horrek, gauza askoren zergatia ikusten laguntzen du. Modu honetan ikasketak erakargarriagoak izaten dira.

■ **Unibertsitateak zer da gehien gustatzen zaizuna?, Eta zerbait hobetzeko?**

Gehien gustatzen zaidana irakasleekin harremanetzeko dagoen erraztasuna da, klasean agian ulertu ez dituzun zenbait kontzepturi buruzko zalantzak argitzen laguntzeko beti daude prest. Hobekuntza moduan, ikasleak gure artean giro lasaian jarduteko espazio ireki gehiago eskatuko nituzke.

■ **GBL egiten ari zara une honetan.**

Aurtengo egoera arraroa kontuan izanda, nik zorte asko izan dudala pentsatzen dut; orain bertan, unibertsitateko ikerketa lerro batean ari naiz lanean, fluidoekin lotuta dagoen lerroan hain zuzen ere. Nire proiektua, berez, ibilgailu elektrikoaren baterien hozte sistemak analizatzen eta haien diseinua lantzen oinarritzen da.

■ **Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?**

Industria Ingeniaritzako Unibertsitate Masterra egiteko asmoa dut, materialen arlokoa hain zuzen ere. Honetaz aparte, irakasle izatea ere gustatuko litzaidake; horregatik, master industrialia amaitu ondoren, irakasle izateko masterra egiteko asmoa daukat.



ASIER GISASOLA

Portu, ubide eta bideetako ingeniaria

Balkoiak

nire emazte izango zenaren etxera; eta gaur arte.

Urte berriak etxez aldatzeko aukera eman digu aurten familiarri. Ez da erraza izaten ari. Etxe berria atontzeko obrena gutxi balitz, gure hiru semeak etxe berrira noiz aldatuko garen etengabe galdezka... Azkenerrako, ba, estres puntua sortu dit, egia esan.

Konfort eremuan bizi ginen, baina bizitza-jokoaren arauak aldatu egin dira. Zoritxarreko pandemia honek kezka sorrarazi digu, gure etxeak nolakoak diren eta bertan nola bizi garen. Askok zer edo zer aldatu edo hobetu nahiko du

“Zorionez, konfort eremutik irteteak bere onurak ere badauzka”

bere etxean: balkoia egitea erabakiko du batek, beste batek telelana egiteko gelatxo atondu, edo bizikleta estatikoarentzat txoko bat bilatu... Ezagun batek esan zidan etxe erreforma asko egiten ari dela Eibarren azken aldian. Eta beste herri askotan ere bai, seguru. Eremita erabatu eraldatzen gabiz.

Eremita publikoetan aldiz, zer? Konturatu gara etxe ondoko inguruak duen garrantziaz? Gure osasunean duen eraginaz? Akaso herritik kanpo lanera joan ahal dugunok ez diogu hainbeste garrantzi ematen. Eta etxean geratzen direnak? Langabeak? Umeak? Gazteak? Edota mugikortasun arazoak dituztenak? Konturatu ete dira?

Eta gure administrazio publikoak, konturatu al dira?

Zorionez konfort eremutik irteteak bere onurak ere badauzka; balkoi asko falta dira jartzeko eremu publikoan. Ez duzue uste?

Ederki eta eroso bizi nintzen gurasoen etxean. 18 urterekin, Santanderrera alde egin nuen. Zortzi urte goxo egin nituen bertan; tira, lehenbizikoa ez zen hain goxoa izan. Autopista egin gabe zegoen, eta gainera dexente ikasi behar zen. Gogoratzen dut maisu kabroi bat, *El Puma*, kurtsoko lehen egunean zera esan ziguna: 6. mailan 40 ikasle graduatuko dira aurten, eta urtero lehenengo mailan 210 hasten zarete. Denok galdetu genion gure buruari non galdu ziren beste 170 horiek.

Karrera bukatu, Elgoibarrera bueltatu eta segidan Mendarora etorri nintzen,

 <p>BARREN</p> <p>ARGITARATZAILEA:</p>  <p>ELGOIBARKO IZARRA Barkaitzailearen Topagunea</p>	<p>Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR 943 744 112</p> <p>Publizitatea: 943 743 704</p> <p>barren.publi@elgoibarkoizarra.eus</p> <p>barren@elgoibarkoizarra.eus</p> <p>www.barren.eus</p> <p>BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik.</p> <p>KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA Zaloa Anaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIA Amaia Arrizabalaga KOLABORATZAILEAK Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edune Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.885 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855</p>	<p>BABESLEA:</p>  <p>ELGOIBAR UDONIA AYUNTAMIENTO</p> <p>LAGUNTZAILEAK:</p>   <p>Gipuzkoako Foru Aldundia</p>
--	--	--



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ ADI, MENDAROKO ODOL EMAILEOK

Hilabeteko hirugarren ostiralean egin ohi dira Mendaroko odol ateratzeak, baina Odol Emaileen Elkartetik jakinarazi digute datozen bi odol ateratzeak aurreratu egingo dituztela. Gaur zortzi, martxoaren 5ean, izango da hurrengo odol ateratzea, eta udakoa, uztailaren 2an. Gorde zuen agendetan bi egunok beraz, ondo dakizue eta zein beharrezkoa dugun odola. Zuen zain izango gara Mendaroko Odol Emaileen Elkartekook ikastolan, 17:30etik 20:30ak arte. Gogoratu COVID-19ak eragindako pandemia dela eta, ordua eskatu beharko dela aurrez, egunean bertan 688 780 471 telefono zenbakira deituta. Segurtasun neurri guztiak zainduko ditugu, eta zatozte lasai. Aldez aurretik, eskerrik asko.

Mendaroko Odol Emaileen Elkartea

▶ MARTXOAREN 8A

Adi, Mendaroko neska eta emakumeok! Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuko dugu martxoaren 8an, eta aurten ere badaukagu zuei proposatzeko ekintza berezi bat Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldetik. Emakume izateaz harro eta pozik sentiarazten zaituzteten arrazoiak zerrendatzera animatu nahi zaituztegu, esaldi, poema, bertso, marrazki... Bidez. Jasotako ekarpen guztiak bildu eta martxoaren 7an jarriko ditugu denak erakusgai frontoian. Leire jantzi-dendan, Morroskillon eta Roteta dendan jasoko ditugu zuen ekarpenak, baina nahiago baduzue e-postaz ere bidali ahal dizkiguzue: mendarokotratuon@gmail.com Horrez gain, antzerki emanaldi bat, kontzertu bat eta hitzaldi interesgarriak ere antolatu ditugu Udalarekin elkarlanean, martxoaren 6, 7 eta 10erako.

Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldea

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuak egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraokak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo www.barren.eus webgunean



BARREN



943 743 704

688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR



Kezka agertu du Udalak pandemia betean “gizalegearen kontrako jarrera ugari” ikusi direlako azken egunotan

Herriko taberna batean grabatutako bideo bat zeresan handia ematen ari da domekaz gozotik. Iruditan, barrara igota ageri da zerbitzari bat, eta musukorik gabe dantzan ageri da jendea. Horren ondoren, eta “Elgoibarren atzeman den erlazazioaren harira” oharra argitaratu zuen domekan bertan Udalak. Oharrean kezka agertu zuen eta “arduraz eta erantzukizunez” jokatzeko eskatu zien herritarrei. Ane Beitia alkateak gogorarazi zuen egoera “oso larria” dela, Elgoibarren dagoen kutsatu kopurua aintzat hartuz gero, eta horregatik, prebentzio neurriak betetzea ezinbestekoa dela nabarmendu zuen. “Hala egiten ez badugu laugarren olatu baten aurrean egon gintezke. Ezin gara erlaxatu”.

Beitiak esan zuen herritar gehienek egoki betetzen dituztela neurriak, baina badirela neurri guztiak betetzen ez dituzten “gutxi batzuk”, eta gehitu zuen ostalariek eta herritarrek batera egin behar dutela lan, neurri murriztaile gehiagoren beharrik izan ez dadin. “11 hilabete daramatzagu pandemian murgilduta. Covid-19aren aurreko bizitzeko erari mugak ezarri behar izan dizkiogu eta kontziente gara, askotan, muga horiei tinko eustea ez dela erraza, baina guztion osasuna dugu jokoan, eta lankidetzat da gakoa, guztiok segurtasun eta prebentzio neurri oro betetzea”, adierazi zuen. Aldi berean, Ertzaintza eta Udaltzaingoa egiten ari den lana txalotu zuen Beitiak eta ohartarazi zuen Udaltzaingoa eta Ertzaintzaren jarduna indartuko dutela kalean.

Bideoan barra gainera igota ageri den zerbitzariak ere oharra argitaratu zuen. Udaltzaingoa alde zioen hamar bat bider sartu zirela tabernara eta sartu ziren guztietan dena zuzen egiten ari zirela egiaztatu ahal izan zutela. Zerbitzari horrek berak zioen bideoa taberna itxi baino bost minutu aurretik grabatu zela eta bai, barra gainera igo zela, une horretan tabernan zeuden bezero guztiak agurtzera. “Benjaren alde esan beharra daukat bera konturatu ere ez zela egin”, zioen hitzez hitz oharrean, arduradunari erreferentzia eginez.

Mendaroko eta Altzolako hondakin-urak Apraizko araztegi bideratzeko bidea hasi du Ura Agentziak

Uraren Euskal Agentziak lizitatu berri du Mendaroko eta Altzolako hondakin-urak Elgoibarko Apraizko araztegi bideratzeko beharrezkoak diren kolektoreak eta ponpaketak eraikitzea ahalbidetuko duen eraikuntza-proiektua idaztea. 127.050 eurokoa da lizitazio-aurrekontua

(BEZ barne), eta zortzi hilabeteko epean gauzatu beharko da. Kolektore-sarea eta ponpaketa-puntuak zehaztu nahi dituzte, arroko hondakin-urak biltzeko, Deba ibaian Kilimon erreka gora egiten duen puntutik Apraizko araztegiaraino.



Bazkide berrien bila ari da Minbiziaren Aurkako Elkarte Debabarrenean

Gaixoei eta senideei ematen dieten arreta indartzeko eta minbizia duten biztanle gehiagorengana iristeko, bazkide gehiago lortzeko kanpaina hasi du AECC Gipuzkoako Minbiziaren aurkako Elkartearen Debabarreneko Batzordeak. AECCko Debabarreneko presidente Amor Arakistainek eta Ainhoa Oregi gizarte langileak eman zituzten bazkide-tza kanpainaren inguruko azalpenak astelehenean. Era berean, minbiziak eskualdean duen eraginari buruzko datuak ere aurkeztu zituzten.

145 minbizi kasu Elgoibarren

AECC Minbiziaren Behatokiaren arabera, 2020an, eta Globocanen prebalentzia-datuetan oinarritutako estimazioen arabera, Elgoibarren 145 kasu daude. Iaz, 84 pertsonari eman zioten arreta Debabarreneko elkarteak: 45 gaixo eta 39 senide. Gaur, 1.302 bazkide ditu Debabarreneko elkarteak eta haien diru-ekarpenarekin ematen du zerbitzua elkarteak. Baina gero eta behar handiagoak daude, eta horregatik hasi dute bazkide-tza kanpaina. www.semanacontraelcancer.com webgunean sartuta eman dezakete izena hala nahi dutenek. Bazkideek nahi duten diru-kopuruarekin lagundu diezaiokete elkarteari (ez dago gutxieneko kuotarik). Kuotak, hori bai, aldiakoa izan behar du, “zerbitzuen jarraikortasuna bermatzeko”.

Kanpaina hastearrekin batera hainbat ekintza ere antolatu dituzte aste honetarako. Atzo, esaterako, kirola, elikadura eta bizitza osasungarriaren inguruko mahai-ingurua antolatu zuten Eibarren. Odei Jainaga xabalina jaurtitzailak, Zalao Otaduy nutrizionistak eta Josetxo Varela kirol teknikariak parte hartu zuten. Gaur, berriz, *Aulki hutsak* dokumentala proiektatutako dute Eibarko Portalean, 18:00etan. Doluari eta itxaropenari buruzko dokumentala da.

Elgoibarko anbulatorioan 24 orduko zerbitzua ezartzeko exijitu diote Osakidetzari Duintasuna-Gaurgeroak eta herriko zeinbait eragilek

Duintasuna-Gaurgeroak eta herriko beste zeinbait eragilek deituta, elkarretaratzea egin zuten eguaztenean Elgoibarren, anbulatorioan 24 orduko zerbitzua ezar zezala eskatzeko Osasun Sailari. “Zerbitzuen murrizteak Elgoibarko herritarren bizi-kalitateari eragiten dio, eta, batez ere, gure udalerriko sektore ahulenei eragiten die”, salatu zuten. Osasun-sistema “publikoa, hurbila eta eraginkorra” izatea pertsonen oinarrizko eskubidea dela nabarmendu zuten eta horregatik mobilizatzeraz eta “elkarrekin lan egitera” deitu zituzten herritarrek, eta batez ere, “pertsonen ongizatearen alde lan egiten duten alderdi politikoak eta gizarte-eragileak”. Horren harira esan dute poztu dituela Elgoibarko alderdi politiko batzuk akordio politiko bat lortzeko lanean eta mugitzen hasi izanak, baina nabarmendu dute dena ez dela ona izan: “Elgoibarko Udaleko EAJ-PSEko gobernu taldeak atzera bota zuen 2020ko uztailean Elgoibarko gizarte-eragileek aurkeztutako mozioa, murrizketa udako hilabeteetara mugatzen zelako eta larrialdi-zerbitzua Eibarko Torrekua ospitalean edo Mendaroko ospitalean ematen zelako. Hilabeteak igaro dira eta hasieratik uste genuena gertatu da: ordutegi-murrizketa ez zen udako hilabeteetarako, eta geratzeko iritsi da. Lehenengo 20:00ak arte murriztu zituzten ordutegia. Orain, 17:00etan amaitzen da”.



Anbulatorioaren gaian akordio politikoa lortu nahi du EHBilduk gainerako alderdiekin

Elgoibarko anbulatorioko zerbitzu-ordutegia murriztu dela salatu du EHBilduk Eusko Legebiltzarrean, eta etengabeko arreta zerbitzua emateari noiz ekingo dion galdetu dio Osasun Sailari, idatziz. Era berean, herrian ordezkariak duten alderdi politikoekin bilera-erronda bat hasiko dutela ere zabaldu dute EHBildutik, “osasun publikoaren aldeko akordio politiko bat proposatzeko eta anbulatorioan etenik gabeko arreta zerbitzua berrezartzea exijitzeko Osakidetzari”. Akordio politikoa bilatu nahi dute, uste dutelako era horretan bakarrik lortuko dutela Osakidetzako zuzendaritzak iritzi aldaztea.

Gaur egun, astelehenetik ostiralera ematen dute zerbitzua Elgoibarko anbulatorioan, 17:00ak arte. Ordu horretatik atzera larrialdiren bat izanez gero, Eibarko Torrekua zentrorra edota Mendarora joan beharra dute elgoibartarrek. EHBildutik gogorarazi dute herriko hainbat eragilek hilabeteak daramatzatela mobilizatzen zerbitzu-ordutegian izandako murrizketen kontra eta 1.000 elgoibartar ingururen atxikimenduak ere jaso dituztela, Osakidetzara bideratzeko. “Garai horretan esaten ziguten murrizketa hori udako hilabeteetarako baino ez zela. Denborak erakutsi du, baina, Elgoibarko anbulatorioko murrizketa geratzeko etorri dela”, jaso dute joan zen astean Jon Peli Uriguenek eta Ai-



tziber Aranberri zinegotziak joan zen barikuan eman zuten agerraldirako idatzitako oharrean. Osasuna eta pertsonen zaintza “lehen mailako beharra” dela gogorarazi du EHBilduk: “Ezin da murriztu, are gutxiago bizi behar dugun pandemia-egoeran”. Osakidetzako profesionalak egindako protestak ere gogorarazi dituzte eta horren harira honakoa esan dute: “Elgoibarko anbulatorioko profesionalen ahaleginak eta konpromisoak bakarrik lortu dute gero eta handiagoak diren gabeziak arintzea”.

Mendaroko eta Eibarko ospitaleetan emango diete txertoa Debabarreneko bizilagunei

Osasun Sailak erabaki du nola emango dituen koronabirusaren kontrako txertoak, eta aste honetan bertan ekin diote txertaketa prozesuari. Eguaztenean hasi ziren etxean bizi diren 100 urtetik gorakoei txertoak ematen. EAEn 1.800 lagun inguru daude adin tarte horretan, eta Elgoibarren bost. 25 zentro izendatu dituzte txertoak emateko, eta Debabarrenean bi gune finko jarri dituzte: Mendaroko eta Eibarko ospitaleak. Osakidetzatik deituko diete txertoa jarri behar dutenei, eta bakoitzaren mugitzeko ahalmenaren arabera erabakiko dute zentroetara joan behar duten txertoa hartzera, eta etxean jarriko dieten. Gune batzuetan autoen barruan txertatzeko aukera ere jarri dute martxan, eta Osakidetzak ez du baztertzeko metodo hori ondo badoa beste adin tarte batzuetako herritarrekin ere aplikatzea.



Era berean, laster hasiko dira txertatzen tutoretzapeko pisuetako eta etxebizitza komunitarioetako adinekoak ere, eguneko zentroetako erabilzaileak, eta etxean dauden menpekotasun handiko pertsonak eta desgaitasunen bat dutenak. Anbulantziatako langileei ere aste honetan deituko diete. Hezkuntzaren eremuan ere pausoak emango ditu Osakidetzak, eskola publikoan lehenik. Jaurrlaritzako Hezkuntza Sailak LAB sindikatuari jakinarazi dionez, maskara gabe egoten diren ikasleekin aritzen diren langileei txertoak ematen gaur hasiko dira: Haur Hezkuntzakoak, heziketa berezikoak eta jangeletako langileak besteak beste. Geroago ekingo diete itunpeko sarean, zentro pribatuetan eta 0-3 urte bitarteko zikloan dihardutenak txertatzeari. 55 urtetik beherakoak lehenetsiko dituzte.

Otsaileko azken zapatuko azoka egingo dute bihar

Elgoibarko Udalak eta Debemen elkarteak antolatuta hileko azken zapatuko azoka egingo dute bihar. Koronabirusaren kontrako murrizketen ondorioz, ezingo dute egitaraua bere osotasunean mantendu, eta ondorioz, ez dira egongo umeentzako tailerrak eta ezta elkarteek jartzen duten txosna ere. Hortaz, baserriarren postuak bakarrik jarriko dituzte: Basartesoeta baserria (barazkiak, ogia...), Nagore Dorronsoro (eztia) eta estreinako aldiz Lizagasar ekoizleek hartuko dute parte. Hauxe izango da hilabete honetako berrikuntza. Bertako sagarrarekin eginiko produktuak ekarriko ditu Lizagasarrek azokara, besteak beste, sagar gozoa, sagar purea, marmelada, zukua, sagardoa... 9:00etatik 14:00ak arte egongo da azoka Kalebarren plazan. Arduradunek jakinarazi dute babes neurri guztiak hartuko dituztela saltzaileen eta baita bezeroen segurtasuna bermatzeko.

Gutxienez Urazandiko igogailuaren obra bukatu arte martxan egongo da herri barruko autobus zerbitzua

Joan zen abuztuaren 10ean hasi zituzten Urazandiko eskailera mekanikoak kendu eta haien ordez igogailua jartzeko obrak, eta ordutik martxan dago herri barruko autobus zerbitzua. Hasiera batean Urazandi eta Erretsundi arteko ibilbidea egiten zuen, baina orain linea gehiago ditu zerbitzuak eta Melitonera iristen da. Udalaren asmoa obrak iraun bitartean zerbitzua mantentzea zen, eta momentuz asmo horri eusten diote. Ondo bidean, igogailua apirilerako martxan egongo dela aurreratu dute Udaletik, eta ordura arte behintzat autobusak martxan jarraituko dutela adierazi dute. Hortik aurrerakoa oraindik erabakitzeko dutela adierazi dute arduradunek.



Obrak iraun bitarte honetan zerbitzuari buruzko hainbat datu eman dituzte: Zerbitzuaren eguneko kostua 275 eurokoa da (BEZa barne) astegunetan, eta 165 eurokoa larunbat goizetan. Azarotik otsailera, zerbitzua eman den 73 egunetan, 8.061 bidaia egin ditu autobusak. Batez beste, 120 bidaia egin dira egunean, eta horietako gehienak (96) Urazandiko ibilbideetakoak dira; Erretsundiko 23 bizilagunek, berriz, egunero erabiltzen dute autobus-zerbitzua, eta pertsona batek egiten du ibilbidea Melitonera. Datu horiekin, bidaia bakoitzak sortutako kostua kalkulatu dute arduradunek, eta esan dutenez; batez beste, 2,3 €-koa da bidaia bakoitzaren kostua astean zehar, eta 3,5 eurokoa zapatu goizetan. Datu guztiak kontuan hartuta diseinatuko dute obrak amaitu osterako bideorria.

Geroaren argi-ilunak

1996an ADEGI patronalak eta ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek adostuta sortu zuten pentsio plana da Geroa. Langileak hilero bere soldataren portzentaje bat jartzen du pentsio plan horretarako, eta enpresak kopuru bereko ekarpena egiten du langilearen poltsara. Diru hori erretiroa hartutakoan pentsioaren osagarri modura berreskuratzen da. Dirua berreskuratzeko modu horretan dago gakoa. Erreportaje honetan jaso ditugu Geroa pentsio planaren ondorioz kaltetuta eta diskriminatuta sentitzen diren hainbat langileren sentipenak, eta Geroako gerente Virginia Oregik ere eman ditu Geroari buruzko xehetasunak.

- AINHOA ANDONEGI -





▶ JOSE MARI LAZKANO

GEROAKO KALTETUEN PLATAFORMAREN SUSTATZAILEA

Jose Mari Lazkano (Getaria, 1953) Klaudio San Martin Elgoibarko enpresako langilea izan zen 1980tik 2017an erretiroa hartu zuen arte, eta azken urteetan enpresako gerentea izan zen, gainera. Apirilaren 7an hasi zen lanean 1980an, eta egun berean hartu zuen erretiroa, 2017an. 1996tik Geroa Jubilatuen Planerako diru ekarpenak egin izan ditu, Gipuzkoako metaleko gainerako langileek bezala. Erretiroa hartzerakoan pentsioaren osagarri izango zen dirua aurrezteko plana da Geroa. Diru hori berreskuratu nahi izan zuenean eman zioten erantzunaren ondotik hasi zen bere egoera berean zeudenen bila, eta dagoeneko, ia bi mila daude Geroako Kaltetuen plataforman.

“Badakit arrazoia daukagula eta Geroak ere badaki”

♦ Zerk bultzatu zintuen Geroako Kaltetuen plataforma sortzera?

Apirilean beteko dira lau urte jubilatuta nintzela. Geroara joan nintzen nire dirua berreskuratu eta nire kontu korrante batera aldatzeko eskatzera, eta han jaso nuen erantzuna ikusita, erabaki nuen zerbaitekin egin behar nuela. Esan zidaten diru muga bat zegoela; orain dela lau urte, 41.000 bat eurokoa zen. Nik diru hori baino gehiago neukanez Geroako akziotan esan zidaten ezin nuela diru guztia batera kobratu, eta formula baten bidez, errenta bat kalkulatu zidaten: 188 euro emango zizkidatela hilero, 23 urtean. 63 urte nituen orduan, eta esan nien nik ez nekiela 23 urte horietan non egongo nintzen ere, eta dirua orduan nahi nuela, ez 23 urtetan! Hori, nire ustez, diskriminazioa da. Gainerako langileen betebeharrak berberak izan ditut, baina orain ez ditugu eskubide berberak. 41.000 eurora arteko diru kopurua

ditutena dena berreskuratu dezakete, baina hortik gora daukagunoi errenta bat jartzen digute. Ez da justua.

♦ Noiz eta nola sortu zen Geroa?

1996ko lan hitzarmenean gehitu zuten puntu bat Adegri Patronalak eta ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuek Geroa izenarekin. Inork ez zekigun zer zen, ez langileek eta ezta nik ere ez, orduan enpresako gerente izan arren. Hitzarmena negoziatuta eta sinatuta zegoenean azaldu ziguten zer zen, eta esan ziguten pentsio plan bat zela, jubilatuta ostean gure pentsioa osatzeko lagungarria izango zena. Langile bakoitzari bere nominatik portzentaje bat kentzen zaio fondo horretarako, eta enpresak ekarpen berbera egiten dio langileari fondo horretara. %1,5eko ekarpenarekin hasi zen, eta gaur egun uste dut %4,6koa inguru dela. Gipuzkoako metal alorreko enpresetan bakarrik jarri zuten martxan orduan, eta derrigorrezkoa da; ez da borondatezkoa, eta nahita ere, langile batek edo enpresa batek ezin dio uko egin Geroari. Plan honek izen oso ona dauka Espainian eta Europan, eta gaur egun, hogeit bat sektoretako enpresak daude Geroan sartuta. Egia da planteamendua ona dela, baina orain konturatu gara dena ez dela horren ona.

♦ Zein pauso eman dituzu azken lau urteotan?

Argi esan nien niri semeek eta bi bilobek bakarrik jotzen zidatela adarra, eta hura ez zela hala geldituko. Nire kabuz joan nintzen Adegira, eta Patxi Sasigain zuzendaritzako kideak berak galdetu zidan zergatik ez nion diru hori Gizarte Segurantzari eskatzen. Nire galdera beste galdera batekin erantzun zuenean konturatu nintzen ez zeukala nire eskaerarentzat erantzunik. Sindikatuetara ere jo nuen, eta haiek ere ez zidaten ganorazko erantzunik eman. Horrek harritzen nau asko ni. Sindikatuak beti ibiltzen dira beraien artean mokoka, eta Adegirekin zer esanik ez, baina Geroaren kasuan denak daude ados. Hori bai, Gipuzkoan bakarrik. Esaten dute Araban eta Bizkaian ere nahi dutela martxan jarri, baina bi lurralde horietako sindikatuak ez daude honekin konbentzitu. Orduan, zer kristo ezkututzen du Geroak?

♦ Ez zenuen, baina, amore eman, eta borrokan jarraitzen duzu.

Jubilatuta nago, eta jubilatuta zerbaitekin badaukagu hori denbora da. Interneten begira hasi nintzen eta nire egoera berean zeuden beste batzuk aurkitu nituen. Haiekin batu nintzen eta kaltetuen plataforma sortzea erabaki genuen. Hasiara batean jubilatuentzako plataforma moduan planteatu genuen, baina lanean daudenak ere sartu ditugu, etorkizunean ez dezaten izan guk izan dugun arazoa. Pentsara jo genuen, eta kasu egin zigun lehenengoa *Noticias de Gipuzkoa* izan zen, baina gure nahia *Diario Vascon* publikatzea zen, Gipuzkoan askoz gehiago irakurtzen delako. Zuzendari ordearekin bildu ginen eta lortu genuen erreportajea publikatzea. Nire telefono zenbakia jarri nuen, gure egoera berean zeudenak plataformara batzeko eta une honetan 1.700 baino gehiago gaude taldean.

♦ Zer erantzun eman dizue Geroak?

Estatutuetan jartzen duela esaten digute, baina niri horrek ez dit balio. Estatutuetan lehen ere egin dira aldaketak gaizki zeuden beste kontu batzuk moldatzeko, eta nik uste dut borondatea badago dena aldatu daitekeela. Heriotza bakarrik da aldatu ezin den gauza, baina gainerako guztia borondatearekin konpondu daiteke, baina horixe falta zaie Geroako arduradunei; borondatea. Adegirekin, Geroarekin eta sindikatuekin batu naiz eta ez dut borondaterik ikusten.

♦ Arazoa izan daiteke, akaso, jubilatzen diren guztiei diru hori guztia batera emateko gaitasunik ez izatea Geroak?

Galdetu nien hori ere; galdetu nien ia dirurik gabe geratzeko beldur ote ziren, eta ezetz erantzun zidaten, hori *peccata minuta* zela esan zidan Virginia Oregi Geroako gerenteak. Ez dakigu zer ezkutatzen duen Geroak. Esaten dute errenta dela beraien filosofia, baina ez dugu ulertzen zergatik. Hasierako urteetan errentan ematen hasi ziren akzioen dirua, baina arduradunek beraiek aldatu zuten gero diru hori kobratzeko modua, eta bi aukerak jarri zituzten. Hau da, hileroko errenta edo dena batera kapitalizatzea.

Jende gehiena dirua dena batera kolpe batean hasi zen, eta horregatik jarri zuten muga bat. Formula baten arabera kalkulatzeko dute muga hori. Ni jubilatuta nintzenez 41.000 euro inguruan zegoen, eta gaur egun 45.000 inguruan dago. Nik 47.000 inguru dauzkat kobratzeko, eta ez didate ematen dena batera, baina aldiz, 44.000 euro dituenak dena kobratu dezake nahi duen eran. Hori diskriminazioa da. Azken batean nire dirua da, nik gozatzeko nik nahi dudana moduan. Nahi badut bidaia bat egin, etxe bat erosi edo dena delakoa, zergatik ez didate diru hori ematen nirea bada? Geroak Ondare handia dauka, akzionista pila bat ditu, 140.000 inguru izango dira Geroari ekarpena egiten dioten langileak, eta pentsatzen dugu diru asko izango duela inbertituta epe luzera begira.

♦ Geroa sortu zenean ez zizueten eman estatutuen berri?

Ez ba! Bestela inork ez zuen nahiko! Langileoi dena adostuta etorri zitzaigun, eta gainera, derrigortuta sartu gintuzten. Ideia bezala ona da, eta langileon ongizatea da helburua, pentsio duin bat eduki dezagun, baina guk nahi duguna da diru hori jubilatzen garenean jasotzea, gure diru guztia batera. Jende gehienak momentu horretan izaten du beharra, eta ez zaigu justua iruditzen hoguei urtetik gora egotea hileroko errenta bat jasotzen, ez dakigulako denbora horretan zer gertatuko den gure bizitzarekin. Pentsa, nire lankide batek Geroari esan zion muga 41.000 euroan bazegoen, emateko berari 41.000 euro eta gainerakoa emateko berak nahi zuenari, baina hala ere ez zioten onartu. Beste batzuek akzioen balioari begira daude uneoro. Iaz, Covid-19aren pandemiaren eraginez, Geroako akzioen balioa jaitsi egin zen, orduan langileon diru kopurua ere txikiagoa zen, jakina. Ba askok une hori aprobeztatu zuten dirua berreskuratzeko, akzioen balioa

jaitsi ostean, Geroak ezartzen duen muga baino diru gutxiago zutelako. Ez al da tristea dirua galdu behar izatea? Burtsan jokatzen duen jende guztia akzioek gora egiteko zain egoten da dirua ateratzeko, eta Geroako akzionistak, alderantziz.

♦ Zure kasuan 23 urterako errenta kalkulatu dizute. Zer gertatuko litzateke errenta horrekin lehenago hilko bazina?

Orain, alargunak kobratuko luke, eta alargunik ez badago, seme-alabek. Baina hori ere aldatu egin behar izan zuten estatutuetan. Orain dela bost urte gertatu zen ondorengoa: jubilatuta batek hilean 177 euroko errenta zeukan, hoguei bat urterako. Hil zen, eta bere alargunari errenta horren %50 bakarrik egokitu zitzaion, eta gainera, esan zioten bera hiltzen zenean seme-alabek ez zutela ezer kobratuko. Nire herrian horri lapurreta esaten zaio. Seguru nago 25 urte hauetan oinordekorik gabeko langile pila bat hil direla eta diru hori Geroan geratu dela. Protesta asko egin ziren horrelako egoeren aurrean, eta eskerrak aldatu zuten! Orain alargunak %100a kobratzen du, baina errenta moduan! Alargun batek momentuan behar izaten du dirua gehienetan, hileroko errenta gehigarri batek ez dio apenas laguntzen. Alarguna hiltzen

denean, seme-alabek jasoko dute errenta hori, baina alargunik edo seme-alabarik ez dagoen kasuetan ilobek ezin dute kobratu. Diru hori nora joaten da? Iluntasun handia dago Geroan. Bete kontu bat ere badago: langilea eta enpresa derrigortuta daude hileroko ordaintzen, baina demagun, langile

bat langabezian geratzen dela, miseria bat kobratzen. Une horretan primeran etorriko litzaioke Geroan sartuta daukan dirua, ezta? Ba ezin du kobratu jubilatuta arte. Zergatik ezin dio Geroak bere dirua eman langabezian dagoenari? Azken batean bere dirua da.

♦ Noraino iristeko asmoa duzue gai honetan?

Epaiketara joatea ari gara aztertzen, eta beharrezkoa balitz, Europako Legebiltzarrerara joateko ere prest gaude. Europako letratu txikiarekin egiten diren iruzurrak oso gaizki ikusita daude, eta uste dugu Europak ez lukeela batere ondo ikusiko hau. Geroak arrakasta handia dauka, eta orain aireratzen ari garen hau guztia beraiantzat ez da ona. Galtzeko asko dute. 24 urtean nahi dutena egin dute, baina ez diegu utziko aurrerantzean ere nahi dutena egiten. Gogorra da egoera, azken batean gu geu Geroako akzionistak gara, jabeak geu gara eta gure kontra joango gara epaiketara, baina bukaeraraino iristeko prest gaude. Nik badakit irabazi egingo dugula, badakit lortuko dugula. Badakigu arrazoia daukagula, eta Geroak ere badaki. Egin ditudan bilera guztietan esan izan diet arrazoia daukagula eta beraiek ez didate arrazoi bat bera ere ematen kontrakoa esanez. Pentsioa osatzeko errenta emateko sortu zela esaten dute behin eta berrero, eta besterik ez. Konforme, osatuko dugu errenta gure diruarekin, baina utzi diezagutela guk nahi dugun moduan kudeatzen gure dirua. Ez sinistekoa da Geroak egin duena. Justizia nahi dugu, eta lortuko dugu, hau ezin dugulako galdu.

“Epaiketara joatea aztertzen ari gara, eta beharrezkoa balitz, Europako Parlamentura ere bai”



▶ VIRGINIA OREGI

GEROAKO GERENTEA

Virginia Oregi Geroako gerentea da, eta ez du bat egiten Geroaren Kaltetuak plataformako kideen eskariekin. Geroaren filosofia eta funtzionamenduaren berri eman du.

“Pentsioaren osagarri izango zen errenta moduan sortu zen Geroa, pentsiodunen bizi-kalitatea hobetzeko”

♦ Nola sortu zen Geroa?

Orain dela 25 urte sortu zuten Geroa, ordura arte metalaren sektorean zegoen beste plan bat hobetzeko. Sidero plana zegoen ordura arte indarrean, eta hori ere pentsioa osatzeko zen, baina bakarrik pentsio hori lanbide arteko gutxieneko soldataren azpitik jasotzen zutenei ematen zitzaien. Hau da, Gipuzkoako metalaren sektoreko enpresa eta langileek hilerokarpena egiten zuten, gutxieneko soldata jasotzen ez zuten horiek ere jubilatutakoan pentsio duina izan zezaten. 1995ean Adegik patronalak eta sindikatuek hausnarketa bat egin zuten, hain justu ere urte horretan Toledoko Paktua sortu zelako, eta esaten zen horrek eragina izango zuela etorkizuneko pentsioetan. Jendeak urte gehiago hartzen ditu, seme-alaba gutxiago ekartzen dira eta esaten zen pentsioen sistema publikoak ezingo lukeela hori guztia eutsi. Hori dela-eta, langile guztientzako onura emango zuen plan bat nahi zuten, eta horrela sortu zuten Geroa, Adegik eta sindikatuek elkarlanean. Beraiek dira enpresa eta langile guztien ordezkariak, eta gai hori lan hitzarmenean sartu zuten. Lan hitzarmeneko puntuetako bat zen, eta gainerako puntuak ere derrigorrezkoak diren bezala, Geroa ere derrigorrezko bilakatu zen.

♦ Zein helbururekin sortu zen Geroa?

Geroa ez zen sortu aurrezki pertsonalerako proiektu moduan; helburu kolektiboa dauka. Langileen pentsioen osagarri izatea da helburua. Sortzaileek pentsatu zuten langile bakoitzak hileroko errentaren osagarri izango den diru kantitate bat jasota, bizi-kalitatea hobea izango zuela. Elkartasun puntu bat ere badauka. Azken batean da gaur langile bakoitzak diru bat aurrezte, etorkizuneko pentsiodunek pentsio publikoaren osagarri izango den errenta bat jasotzeko. Filosofia horrekin sortu zen Geroa.

♦ Pentsio plan bat da, baina ez du gainerako pentsio planen funtzionamendua, ezta?

Hori da, Geroa ez da pentsio plan individual bat. Horiek desberdin funtzionatzen dute. Pentsio plan individuala kontratatzen duenak modu indibiduallean aurrezten du, jubilatzen denerako edo epe laburrago baterako. Hamar urteren ondoren diru hori berreskuratzeko aukera ematen du pentsio plan indibidualak, eta berreskuratu daiteke kolpera edo zatika. Eta norberak erabakitzen du baita ere errenta finkoko edo aldakorreko pentsio plana nahi duen; Geroa ez da hori. Geroa proiektu sozial bat da, orain dela 25 urte diseinatu zutena, pentsatzen modu horretan gaur egun baldintza hobek izango zituztela pentsiodunek.

♦ Geroako kaltetuen plataformakoek nahi dute gainerako langileen eskubide berberak izatea eta euren dirua nahi duten moduan berreskuratu ahal izatea. Zergatik ez da posible?

Geroa errenta osagarri bat da, eta errenta bat gutxinaka kobratzen da, urte askotan zehar. Helburua da langile hori bizi den artean pentsio duin bat bermatzea. 2001. urtean hasi ginen ordaintzak errenta moduan egiten eta horrela jarraitzen dugu. Hasierako errentak hileko 60 eurokoak ziren, eta gaur egun 200 euroren bueltan ordaintzen dugu, gutxienez 20 urtean. Diru guztia batera jasotzeko aukera ematen zaie 20 urtean 200 euro inguruko errenta bat bermatu ezin zaien langileei. Baina horiek ere badute aukera errenta moduan jasotzeko euren dirua, edo urte gutxiagotan edo hilerok errenta txikiagoa jasota. Geroaren helburua ez da diru guztia kolpera ematea; pentsioaren errenta osagarri moduan jaio zen Geroa, eta estatutuetan hori guztia jasota dago. Gizarte Segurantzak ere pentsioak hilerok ordaintzen ditu, ez du kolpera ematen jubilazioaren diru guztia, ezta? Baina jakina, hemen batzuk bere ziliborari bakarrik begiratzen diote; oso indibidualistak gara. Errenta sistemarekin norberak eta gizarteak irabazten du.

♦ 91 urtera arteko errenta kalkulatzeko zaila da langileei. Zer gertatzen da adin horretara iristen ez badira?

Alargunak jarraituko du kobratzen errenta hori, eta alargunik

ez dagoen kasuetan, seme-alabek, eta ez badago, langileak berak zehaztuko du nori utzi nahi dion errenta hori. Geroa ez da enpresa pribatu bat eta hemen ez du inork dirua bere poltsikora eramaten. Geroa, Lagun Aro, Elkarkidetzeta... denek errenta moduan ordaintzen dute, helburua delako pentsioaren osagarri izatea.

♦ **Langabezian geratzen den langile batek ezingo luke une horretan berreskuratu Geroan daukan dirua? Edo ebakuntza larriren bat ordaintzeko dirua behar duenak ezin du une horretan Geroako poltsan daukan dirua bereganatu?**

Ez. Zuk etxeko aseguru bat daukazu, ezta? Autoa hondatzen bazaizu, etxeko aseguruak ez dizu autoa konpontzen,

ezta? Ba Geroa ez zen horretarako jaio. Geroa sortu zen jubilatuek ostean pentsio duin bat edukitzeko errenta osagarri modura.

♦ **Plataformakoek diote beraiei ez zitzaizela azaldu hori horrela izango zenik. Eman zitzaizen estatutuen berri langile eta enpresei Geroaren sorreran?**

Jakina! Urtero ematen zaie informazioa, eta estatutuetan aldatetarik egiten diren bakoitzean ere ematen zaie denek horren berri. Lan hitzarmenaren berri ematen zaizenean dena azaltzen zaie langileei puntuz puntu, eta soldata zenbat igotzen dieten jakiten duten moduan, Geroa zer den ere azaltzen zaie. Geroako Kaltetuekin harrituta nago, azken batean diru gehien dutenak dira, eta gehien kexatzen direnak.

Plataformakoen hitzak

▶ JOSE IGNACIO JAUREGI



"Lotsagarria da Geroa egiten ari dena. 96ko Lan Hitzarmenean sartu zuten gai hau, eta denoi ideia bikaina iruditu zitzaigun, baina arazoa jubilaziora iristean sortu zaigu. Nik ezin nuen sinistu gertatzen ari zitzaidana, eta zerbait egin nahi horretan, hamabost bat gutun bidali nituen *Diario Vasco* egunkarira, baina ez zidaten bat bera ere publikatu, eta badakit beste kaltetu batzuk ere bidali zituztela eta haienak ere ez zituzten argitaratu. Tristeia da Geroako bazkideak akzioen prezioa jaisteko zain egotea beren dirua berreskuratu ahal izateko. Askok iazko martxoan atera ahal izan zuten dirua, burtsa asko jaitsi zelako, baina jakina, sei mila edo zortzi mila euro galduta. Une honetan 45.120 euroan dago muga. 45.119 euro duenak kolpera hartu dezake dirua, baina 45.121 euro dituenak errenta moduan kobratu behar du. Ez dago eskubiderik. Nik eskatu nuen gutxienez erdia emateko niri, nire soldatetik kendu zidatena eta enpresak jarri zuenarekin konponduko ginela beste modu batean, baina hori ere ez zidaten onartu. Ez dute ulertzen diru hori orain behar dugula eta ez 90 urte ditugunean! Diru muga hori aldakorra da, formula matematiko baten arabera kalkulatzen dute, eta horri begira gaude asko, muga igotzen denean, dirua kolpera atera ahal izateko. Bitartean, borrokan jarraituko dugu".

▶ JOSE LUIS AGIRREGOMEZKORTA



"Metal sektoreko langile guztiok derrigortuta gaude Geroan diru ekarpenak egitera hilero-hilero. Hutsik egin gabe kentzen digute dirua soldatetik zuzenean, langileari parte bat eta kopuru berbera jartzen du enpresak, eta gaur egun gazteek lan kontratu bat sinatzen dutenean zuzenean kentzen diete portzentaje bat Geroarako, inolako esplikaziorik eman gabe. Nahita ere ezin zaio uko egin Geroari. Enpresa batzuk saiatu izan dira une txarrak pasatzen ari zirenean Geroarako ekarpenak eteten, eta ezin izan dute. Sekulako boterea dauka Geroak eta ezin da inor hortik irten. Baina kaltetuak ere asko gara, eta kaltetuen plataforman 1.800 lagun baino gehiago gaude dagoeneko. Niri egin didate errentaren kalkuloa: Une honetan 1.726 partaidetza akzio ditut Geroan, eta bakoitzak 26 euro inguruko balioa dauka. Hileko 198 euro emango dizkirate, 20 urte eta zortzi hilabetetan. Ez dut onartu, jakina. Nik nire diru guztia nahi dut orain, nahi dudanean erabiltzeko. Plaza erdian diru pilo bat egin eta su eman nahi badiot ere, nire dirua da".

▶ ADOLFO MARTIN



"Guri ez ziguten ezer esplikatu, eta orain ere estatutuak aldatzen dituztenean ez digute ezer garbi azaltzen, ez Geroak eta ezta sindikatuek ere. Guri esan ziguten bakarra izan zen jubilatzen ginenean pentsioaren osagarri izango zen dirua aurrezteko modua zela Geroa, parte bat guk jarriz eta beste parte bat enpresak. Ideia moduan sekulakoa da, baina nola kobratuko genuen diru hori ez ziguten esplikatu. Nik ez dut onartu errenta. Esan nien dirua kolpera nahi nuela, eta ezetz erantzun zidatenez, nire dirua han daukate oraindik, beste askorena bezala. Askok gogoz kontra onartuko zuten seguruenik errentan kobratzea, baina beste batzuei pentsatzen dut ondo etorriko zaiela errenta hori. Esaten dute langileok garela helburua, baina gero beraiek kudeatzen dute gure dirua. Beste pentsio planak hamar urtera berreskuratu daitezke, baina hau ez. Guk nahi duguna da diru hori guk kudeatzea eta guk nahi dugunerako erabili ahal izatea. Norberaren aurrezkiekin norberak nahi duena egiteko eskubidea eskatzen dugu. Pentsioaren osagarri hori kolpera kobratu eta gero geuk jakingo dugu nola kudeatu, ezta?. Guk espero dugu estatutuak aldatzea, lehen ere aldatetarik egin izan dituzten bezala".



Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Gabriel Krutzelaegi kaleko igogailua hondatuta egon da: “Beste behin ere, Gabriel Krutzelaegi kaleko igogailua hondatuta egon da aste honetan. Txarrena da ez dela mantenu faltagatik hondatu, baizik eta jendeak gaizki erabiltzen duelako igogailua. Asteburuetan gazte asko pilotzen da kale honetan eta dena zikin-zikin lagatzeaz gain, igogailua hondatzen ibiltzen dira. Batzuek ez daukate besteeikiko inolako errespeturik”.



Herriko Antzoki aurreko aparkalekue-tan autoek alderantziz aparkatu beharko lukete: Herritar batek ondorengo proposamena bidali digu BARREnera, eta esan duenez, Udalean ere aurkeztu du: “Herriko Antzoki aurreko aparkalekuan autoek kontrako norabidean aparkatzea gomendatzen dut, seguruagoa delako. Autoak atzeraka sartu beharko lirateke aparkalekuan, baina irteterako orduan askoz seguruagoa izango litzateke. Gidaria aurreraka irtengo litzateke, eta arazorik gabe ikusiko litzuzke bidetik datozen gainerako ibilgailuak. Atzeraka irteterakoan, nahiz eta poliki-poliki irten, beti dago arrisku handiagoa. Nik neuk eduki izan dut horrelako sustoren bat, behin quad batekin eta beste behin eskola-autobus batekin. Udalerri batzuetan badaude horrelako aparkalekuak, eta nire ustez, seguruagoak dira. Udalari ez diot obra berezirik eskatzen, lurreko marrak berriz margotzea besterik ez da egin behar, eta nire ustez, asko irabaziko genuke”.



Herri barruko autobus zerbitzua sekulako ideia izan da: “Txalo bero bat eman nahi diogu Udalari herri barruko autobus zerbitzua martxan jartzeagatik. Sarri erabiltzen dut, batez ere, erosketak egin ondoren, eta erdigunean bizi ez garenontzat oso eroso dela iruditzen zait. Esan didatenez Urazandiko igogailuaren obrak bukatzen direnean zerbitzu hau kendu egingo dute. Pena handia hartuko nuke, benetan. Espero dut hala ez izatea, behingogatik goiko auzoetakoak aintzat hartu gaituzte eta atzerapauso handia litzateke orain zerbitzu hau kentzea. Eskerrik asko”.



► IÑIGO SARD INGENIARIA AVSN

NASA Ameriketako Estatu Batuetako Espazio Agentziak Martera inoiz bidali duen ibilgailu sofistika-tuena da 'Perseverance', Marte esploratzeko ibilgailua. Sei hilabete eta erdiko bidaia egin eta gero, joan zen otsailaren 18an ailegatu zen Planeta Gorrira, eta dagoeneko bidali ditu lehen irudiak eta soin-
nuak. Helburu potoloagoak ditu, baina, iraganeko bizitza arrastoak bilatzea baita 'Mars 2020' mi-
sioaren helburu nagusia, arrokkak eta lur laginak batuta. Horrez gainera, astronautak bidali ahal izateko

eta Marten bizi ahal izateko zenbait esperimentu ere egingo ditu, eta planetak duen eguraldia hobeto ezagutzen lagunduko du. Lan horiek gauzatzeko hainbat ikerketa tresna ditu 'Perseverance'-k, puntako teknologia dutenak. Elgoibarko AVS (Added Value Solu-
tions) enpresak egin ditu tresna horietako batzuk. Beste enpresa batzuentzat ezinezkoak direnak edo ausartzen ez diren proiektuak
onartu eta aurrera ateratzen espezializatu da AVS, 2006an sortu zutenetik. Elgoibarren eginiko piezak Marteraino eraman dituen
proiektu honetan kalkuluen arduraduna izan da Iñigo Sard ingeniaria. Berak eman digu bost urteko lanaren berri.

- ASIER ORBEA -

"AVSk beste inork egiten ez dituen gauzak egiten dituen ospea dauka"

◆ **Has gaitzen amaieratik. NASAk Cañaverl lurmuturretik (Florida, AEB) jaurti zuen uztailean 'Perseverance' ibilgailua Marteraino eraman duen Atlas V suziria. Sei hilabete eta er-
dian 500 milioi kilometroko bidaia egin eta gero, otsailaren 18an ailegatu zen Martera. Nola bizi izan zenuten martera-
tzea?**

Arraroa izan da. Horrelako une garrantzitsu bat elkarrekin bi-
ziko genukeelako pandemiarik egon ez balitz. AVSko bi orde-
zarik Madrilen egin zuten ekitaldi ofizialean hartu zuten parte,
baina gainerako langileok etxetik jarraitu genuen Marteratzea,
NASAk zuzenean eman baitzuen. Zehatzago esanda, 11 minu-
tuko atzerapenez, Marte eta Lurra arteko distantzia bete behar



baitu seinaleak. Cavo Cañaveraletik egin zuten suziriaren jaurtiketara ere joatekoak ginen zortzi bat lankide, familia-koetz lagunduta, baina une gogoangarria izango zen hori ere zapuztu zigun koronabirusak. Pena handia eman zigun.

♦ **Horrelako bidaia luzea egin ostean, azken minutuak izan ziren erabakigarrienak. "Beldurrezko minutuak" deitzen diote NASAkoek marteratzeari, atmosferan sartzen hasten denetik gainazala ukitzen den arte pasatzen den denboragatik eta operazio horrek duen konplexutasunagatik, besteak beste, denbora tarte horretan 20.000 kilometro orduko abiadura murriztu behar izan zuelako.**

Misio honetako unerik kritikoenetarikoa zen, eta txarrena da zerbait okertzen bada, ezin duzula ezer ere egin. Zazpi minutu horietan espazio ontziak egin beharreko sekuentzia guzti hori programatuta dago. *Perseverance*ek modu erabat autonomoan, barruan zituen aginduekin, asmatu behar zuen gainazalera iristen. Pentsa, operazio hori bera hemen lurrean bertan egitea ere izugarri konplexua izango litzateke: 1.043 kilo pisatzen dituen ibilgailua Lurraren atmosfera kanpotik bota eta modu erabat autonomoan lur hartzea. Eta noski, askoz ere konplexuagoa da 500 milioi kilometrora egitea. Horrelako gauza bat egiteko gai garela pentsatzea bakarrik zoratzeko modukoa da. Ematen du zer pentsatua, ezta?

♦ **Zer zegoen jokoan AVSrentzat?**

Azken zazpi minutu horiek tentsio handiko uneak izan ziren, jaurtiketakoak izan ziren moduan. Suziria hegan ikusi arte ez ginen lasaitu. Eta *Perseverance* dagoeneko Marteko gainazalean badago ere, tentsio handiko beste une bat bizitzea gelditzen zaigu guri. Izan ere, gure sistemetakoa bat zabaldu eta itxi egiten da. Egun gutxi barru zabaldu beharko da, eta hor bai tokatuko zaigula izerdia ateratzea. Dena ondo joan dadila espero dugu eta NASAtik deirik ez jasotzea.

♦ **Planeta Gorrira bidali izan diren ibilgailuetatik %40k lortu dute orain arte arrakasta izatea. Alegia, arrakasta izatea ez zegoela ziurtatuta, ezta?**

Estatistiketan dioten moduan, N=1 aukera geneuzkan. Hau da, behin irtenda ondo, nahikoa da, baina, ez, arrakasta ez zegoen ziurtatuta, inolaz ere ez. Oso oso gauza zaila da. Horregatik ez zait justua iruditzen jendeak bidegabe epaitzea ondo irteten ez diren espazioko misioak. Adibidez, puskatu zen Europako espazio-zundak kritika handiak jaso zituen. Izugarriko lorpena da era honetako misioak ondo irtetea, mila gauza irten daitezkeelako gaizki, eta gainera ez daudelako gure esku horietako asko. Errudunak bilatzeko joera daukagu, baina horren urrun iristea ekintza gogoangarria da, balentria bat. Horrelakoetan beti aipatzen diot jendeari honakoa: duela bi belaunaldi nire amonak ez zeukan argindarririk edo txorrotako urik etxean, eta orain bere ilobak egindako gauza bat Marteko gainazaleraino ailegatu da. Izugarria da.

"Oso profesionalak eta efizienteak dira NASAkoak, baina estutu behar denean estutu egiten zaituzte"

♦ **Zer sentitzen da norberak diseinatu eta egindako tresna bat, eskuartearen erabili duena, horren urrun ailegatu dela jakitean?**

Ikaragarria da. Ez dakit sentitzen dena hitzez azaltzeko gai naizen ere. Betetasun sentimendu bat daukat, gure hondar aletxoak jarri dugulako gizateriak


aurrera jarrai dezan abiatutako esplorazio bidai amaigabe honetan. Antzinatek datorren gizakiaren esploraziorako eta mugak gainditzeko bulkada horri pastelaren ginda jartzea modukoa izan da. Sekulakoa da esplorazio horren puntaren puntan parte hartzeko aukera izatea.

♦ **Gurpildun laborategi bat da 'Perseverance', eta puntako teknologia duten hainbat tresnez hornitua dago, arroka edo hauts lagin txikienetan bizitza arrastoak aurkitu ahal izateko. AVSn egindako ze tresna ditu? Zertarako balio dute?**



Tresna horietako batzuei ekarpena egin diegu guk. SuperCam deiturikoak arroka eta lurra aztertuko ditu laser baten bidez, eta mineralez osatutako erretilu moduko bat diseinatu eta egin dugu guk. Txikia da, eskuan sartzeko modukoa, eta kamera kalibratzeko balio du. Erreferentzia ezagun batzuetan oinarrituta aztertuko ditu Marteko gainazalean topatuko dituen arroka. Horien konposizio kimikoa, atomikoa eta molekularra aztertuko ditu SuperCam laserrak. Azterketa horiek egin ahal izateko sarritan kalibratu beharko da laserra. Ibilgailuak daraman Meda eguraldi estazioko parte bat ere garatu dugu, Marteko haizea neurtzeko sensore mekanikoak egin ditugu, hain zuzen ere. NASAk Martera



Miguel Ángel Carrera, Rikardo Diego eta Jon Osoro AVSko hiru bazkide fundatzaileak, Iñigo Urkullu lehendakariak 2017an enpresara eginiko bisitan



Perseverance Rover ibilgailuak ikerketarako hainbat tresna ditu, eta horietako bat da SuperCam laserra, espektometroa eta kamera. Arrokak eta lurra aztertuko ditu, bai konposizio kimikoa, bai atomikoa eta molekularra. Tresna horretarako mineralen osatutako erretilu moduko bat diseinatu eta egin du AVSk (goiko irudian borobilduta), kamera kalibratzeko balio duena. Martetik bidalitako ondoko argazkian oso argi ikusten da AVSkoe eginiko 'Calibration Target' delako pieza (puntutun plaka)



bidali zuen aurreko misioak, Curiosityak, (2012an ailegatu zen Martera), bazuen horrelako tresna bat, baina arazoak eduki zituzten haizea neurtzeko sentsoreekin. Marteratzerakoan kaltetu zirela uste dute. Hori dela-eta, ezin izan dituzte haizeari buruzko datuak jaso. Sistema horiek hobetu eta indartsuagoak egitea nahi izan dute *Mars 2020 misioan*, eta horixe izan da jarri ziguten erronka. Horregatik egin dugu tolestuta, sentsoreak babestuago joan zitezten marteratzeko operazioan. Horrez gainera, badu beste abantaila bat ere, tresna zabaltzerakoan robotaren lepotik gehiago urrunduko da eta zehatzagoa izango da haizearen neurketa, perturbazio gutxiago jasoko dutelako sentsoreek. Haizea neurtzeko sentsore horiek hobetu dituzten arren, filamentu oso meheak dituzte eta tentu handiz egin behar da lan beraiekin. Eskatu ziguten tresnak ezaugarri jakin batzuk eduki behar zituen, baina erronka izan da ezaugarri horien arteko oreka bilatzea. Batek, Marteraino ailegatzeko sendotasuna eduki behar zuen, eta edozein baldintzapean zabaltzeko gaitasuna. Baina, bestetik, zabaltu eta tolesteko prozesu horretan ezin dira horren sen-

tikorak diren sentsoreak kaltetu. Erronka handia, alajaina, baina aldi berean dibertigarria izan da oreka hori bilatzeko diseinu prozesu guztia.

♦ Nola jarri zen harremanetan Elgoibarko enpresa bat NASA-rekin?

NASAK Marterako misio honetarako sentsoreak hobetzeko beharra zuela jakin zuen Madrilen dagoen astrofisika institutuak, eta gure berri eman zien aurreko instrumentua egin zuten kideei, Madrileko "Centro de Astrobiologia" (CAB) taldekoei. Horiek, arazoari konponbidea emateko gai izan gintezkeela esan zieten amerikarrei, gure dinamotasuna dela-eta. Izan ere, txikia izateak badu bere abantaila alor honetan. Freskotasuna edo lotsagabekeria dugu erronkei aurre egiteko. Dezente hazi garen arren, oraindik mantentzen ditugun ezaugarriak dira, eta izen bat eman digu horrek, erreputazioa: Beste inork egin nahi ez dituen gauzak,

gauza zailak, egiten ditugula. Erronka teknikoei irtenbideak emateko bokatzea daukagu. Enpresa handi bat zarenean, duzun lan bolumen handi horri eusteko irabaziaz behar dituzu, eta horrek arrisku gutxiagoko lanak onartzeraz eramaten zaitu, konplexuta-

"Dagoeneko hasita gaude lanean 'Perseverance'-k Marten jasoko dituen laginen bila 2026an joango den misiorako"



sun tekniko txikiagoko lanak onartzera, emaitza ziurragoa delako. Gu, aldiz, suhiltzaileak modukoak gara, jendeak suari ihes egiten diorean sutara gerturatzen dira beraiek eta berdinean egiten dugu guk zailtasun teknikoak planteatzeko dizkigutenean. Eta beti lokatzetan sartzeko gogo horrek eraman gaitu gauden lekura eta daukagun erreputazioa izatera.

Hala ere, NASAkoak konbentzitzea ez zen lan erraza izan. Hegan egiten zuen ezertan lan egin gabekoak ginelako ordura arte eta, jakina, oztopo handia zen hori espazioaren alorrean. Horregatik zaindu gaituzte luparekin, baina erakutsi diegu ez zuelako oker gugan sinistu zutenean.

♦ Zer esan dizuzte NASAkoek zuek egindako lanaz?

Gu oso pozik gaude egin dugun lanarekin eta NASAkoak ere oso pozik daude gure lanarekin, eta gauza handia da hori. Esan behar da elkarlan erraldoi baten fruitua dela *Mars 2020* misioa. Jende, laborategi, enpresa eta erakunde mordoa aritu gara lanean. NASA bera ere hainbat laborategiren batura da. Zientzian, esploratu gabeko alorretan bereziki, ezinbestekoa da elkarlana. Elkarte handiak sortu behar dira eta bakoitzak bere ekarpena egin behar du. Azken finean, ingeniari moduan egiten duguna da arazo teknikoei konponbidea eman, komunitate zientifikoak aurrera egin dezan.

♦ NASAK Kalifornia hegoaldean duen Jet Propulsion Laboratory (JPL) laborategian elkartu zituzten 'Perseverance' osatzen duten pieza guztiak. Nolako esperientzia izan zen?

Nire lankide Arkaitz Larman, diseinu arduraduna, izan zen guk eginiko piezak ibilgailuan gaineratzeko lanean aritu zenerako bat. Eta JPLkoak poz-pezik gelditu ziren gure lanarekin, eta lirurata Arkaitzenarekin. Gutxi behar izan zuten gure lankidea eurentzat geratzeko (barrez). Neuk eginiko kalkulu txosten bat inoiz jaso zuten onenatarikoa zela ere jakinarazi ziguten birritan, eta zoriondu egin gintuzten. Harro sentitzekoa da esperientzia handia duen jendearengandik halako laudorioak entzutea. Gauzak ondo egiten ari garen seinala da, eta errekonozimendu bat gure lanari. Hala ere, estutu behar denean estutu ere egiten zaituzte NASAkoek, hala egin behar dutela uste badute. Arazoak konpondu behar dira eta kitto! Ez da ezer pertsonala. Gauzak ondo daudenean ondo daude, eta gaizki daudenean, gaizki. Berba egin eta arazoei konponbidea eman behar zaie, erruduna topatzen denbora galdu beharrean. Oso profesionalak eta efizienteak dira. Gustua ematen du NASAkoekin lan egiteak. Esperientzia oso aberasgarria izan da gure arteko hartu-emana. Asko ikasi dugu bost urteotan.

“Zerbaitegatik dago AVS Elgoibarren; ez da kasualitatea, kausalitatea baizik”

♦ Elgoibar Makina Erremintaren hiriburua moduan ezagutzen da, baina zuen enpresak Silicon Valley baterako aproposagoa dirudi. Hala, bertako industriak izan duen bilakaeraren adibidea zarete?

AVS enpresa sortu zuten hiru bazkideetako bat den Miguel Angel Carrerak beti aipatzen du zerbaitegatik dagoela AVS

Elgoibarren, ez dela kasualitatea, kausalitatea baizik. Erdi txantxetan esan ohi dugu hemen harri bati ostikada bat eman eta taladrina ateratzen dela azpitik. Egia da ehun industrial honetaz inguratuta egotea abantaila handia dela. Edozein arazo dugunean bertatik bertara ditugu gure hornitzaileak eta era askotariko enpresa ugari. Ekintzaitetasun kultura hori eta hor bildukako jakituria guztia izan zen 2006. urtean AVS hemen sortzeko arrazoietako bat. Ordura arte pilotutako jakituria hori, zehaztasun handiko gauzak egiten eta mugitzen jakitea, eta ingurune konplexuetan egiteko gai izatea, horra hor AVSren arima, izateko funtsa. Horixe da egiten duguna. Hasieran guk garatutako zientzia lurrean erabiltzekoa zen, baina denborarekin espaziorantz begira jarri eta hazi egin gara. Eta begira nola diren gauzak: urte gutxitan Marten gaude. Duela zortzi urte iritsi nintzen ni AVSra eta espazioarekin zerikusia zuten pare bat proiektu bakarrik zeuden martxan. ESA Europako Espazio Agentziarentzat garapen teknologikoak egiten genituen, hasita geunden sektore horretan murgiltzen, oso ondo ezagutzen eta menperatzen genuelako huts teknologia eta baita erradiazioaren ingurukoak ere, instalazio zientifikoetan lan egin izanagatik. Pauso naturala izan zen guretzat, konplexutasuna handitzen duen pausoa izan zen arren. Orain, Martekoaz gainera, espazioarekin zerikusia duten proiektu ugari ari gara lanean; eskuak bete lan daukagu egia esan. Dagoeneko hasita gaude lanean *Perseverance*ek Marten jasoko dituen laginen bila 2026an joango den misiorako.



Meda eguraldi estaziorako Marteko haizea neurtzeko sentore mekanikoak egin ditu AVSk.

“Espazio falta nabarmena dutela adierazi digute enpresek”



Iñaki Arregi MENDAROKO ALKATEA

Joan zen egunean zabaldu zuen Mendaroko Udalak ‘Mendaro berri’ boletinaren hirugarren alea. Boletinean, 2021eko aurrekontuari buruzko datu nagusiak aletu dituzte, bai eta etorkizunerako aurreikusten dituzten hainbat proiektu ere, tartean ospitalerako igogailua, futbol zelaia eta zubi berriaren aurreproiektua (*mendaro.eus* webgunean dago boletina). Puntu nagusietako batzuk ekarri ditugu hona, Iñaki Arregi alkatearekin idatziz egindako elkarrizketara.

- AINARA ARGOITIA -

◆ Legeintzaldiaren erdia beteko duzu konturatzera. Zer balorazio egiten duzu orain artekoaz?

Legealdiaren balantzea ekainean burutuko dugu. Datozen asteetan aztertuko dugu Legealdirako ezarriko lerro estrategikoen betetze maila zein den eta bakoitzean txertatuak ditugun proiektuak zein puntutan ditugun. Behin datu horiek eskuartean, komunikatuko dugu zein den legealdi-erdiko egoera eta balantzea.

◆ Boletina argitaratu berri duzue eta

hor badira hainbat kontu aipagarri. Mantentzen diren laguntzen artean **Berdintasun Planaren egikaritzea jaso duzue. Diagnostikotik abiatu ohi dira plan guztiak. Zeintzuk dira diagnosi horren ondorio nagusiak? Zein fasetan dago plana? Zeintzuk dira hurrengo pausoak?**

2020an burutu zen Mendaroko berdintasunaren egoeraren azterketa eragile eta herritar ugarirekin. Horren diagnostikoa eta balantzea egin da eta martxo

erdialdera ekingo zaio Berdintasun Plan berria idazteari. Oraindik eragileei, zein udal teknikari eta ordezkari politikoei, ez diegu diagnostikoaren berri eman, beraz, lehenik, parte-hartzaileei komunikatu emaitza eta etorkizuneko lanketa, eta ondoren gizarteratuko dugu.

◆ **Gizarte-taldeentzako laguntzen atalean aipatzen da kultura-programaziorako, euskararako eta gazteriarako aurrekontuari eusten zaiola, ekintza berriak bultzatuz. Zer duzue eskuartean?**

Zeintzuk dira Udalaren lehentasunak kulturaren alorrean?

Ezinbesteko alorrak dira herria bizi mantentzeko. Horregatik, partidak zein eragileei bideratzen zaizkien laguntza guztiak mantendu ditugu.

Kultura alorrean kalitatezko eskaintza bultzatu nahi dugu ohiko ekintza guztiak mantenduz. Horretarako herriko hainbat eragilerekin elkarrizketak mantentzen gabiltza epe laburrean programazio berezi hori martxan jartzeko.

Gazteria alorrean berriz, Gazte Plana egiteari ekingo zaio lehen seihilekoan. 9.000 euroko aurrekontua ezarri da horretarako. Baita, ludoteka eta gazteleku zerbitzuen esleipena aterako dugu, bi zerbitzuak indartuz.

♦ **Soziolinguistika Klusterrak jakinarazi du azaroan egitekoak zituen euskararen kale neurketak udaberriaren egingo direla. Noizko dago aurreikusita? 2017ko kale neurketak datu kezkarriak azaleratu zituen eta azkena egin den Euskaraldiaren balorazioa aintzat hartuta ez du ematen askoz emaitza hobea etorriko denik. Zer aurreikusten du Udalak egoera iraultzeko?**

Data zehazteke dugu oraindik UEMA-rekin. UEMA-rekin elkarlanean Euskara bultzatzeko planarekin jarraitzen dugu. Helburua da erabilera bultzatzea, eta horretarako lan leku ugari definitzen ari da Udala. Neurketak azaleratuko du zein den egoera egun eta horren arabera neurriak hartzen jarraituko dugu.

♦ **Boletinean jasotakoaren arabera, gizarte zerbitzuak, landa eremua, irisgarritasuna eta eraginkortasun energetikoa lehenetsi ditu Udalak aurrekontuetan. Landa eremuko gaiek sortu dute zalaparta azkenaldian. Landa-bideen ordenantza dago batetik, eta Eukaliproaren landaketa bestetik. Bigarrenaren harira esan duzue Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritza Nagusiarekin harremanetan zaudetela. Zer da eskatu diozuen? Zer da herritarrei aurreratzeko moduan zaudetena?**

Aldundiarekin harremana etengabea

“Aldundiarekin elkarlanean ari gara zubi berriaren proiektua gauzatzeko finantziarioa zehazten”

da, bereziki zuzenki beren eskumenekoak diren gaiekin, tartean basoen kudeaketa. Horren harira, Aldundiak abian jarri ditu bertako espezieak landatzeagatik eta kudeaketagatik hobariak, eta horien zabalpena egingo dugu guk herrian. Udal mailan, aztertzen ari gara nondik jo: mahai gainean daude, esaterako, bertako espezieen landaketa erakargarriago egiteko neurriak hartzea edota mugak ezartzea bestelako landaketei, ahal den neurrian. Horren aurrean, hiru udal taldeak lanean ari gara, eta datorren ostegunean, otsailak 25, beste bilera bat dugu neurriak finkatzen joateko.

♦ **Mendaroko eta Altxolako hondakinurak Elgoibarko Apraizko araztegiara eraman ahal izateko kolektoreak eta ponpaketak eraikitzeke proiektuaren idazketa lizitatu du URA agentziak, eta albiste horri erantzunez bidegorriaren proiektuari heltzeko unea dela ikusi dute hainbat herritarrek. Duela hiru urte Gipuzkoako Foru Aldundikoak 37 udalerritan izan ziren 2018ko aurrekontuetarako ekarpenak jasotzen. Bidegorriarena izan zen Mendaron eskaera nagusietako bat. Udalaren lehentasunetan non dago bidegorria? Eginbideren bat hasita al du horren inguruan? Zein eta zeinek?**

Lehentasuna da Udalarentzat. Gainera, Elgoibarko Udalarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin zein URA agentziarekin elkarlanean ari da Udala hondakinurak bideratu eta bidegorria garatzeko, denborak bateratuta eta era koordina-

tuan. Oraindik ez dugu data zehatzik itxi.

♦ **“Herrian bizi eta herrian lan aukerak eskaintzea da lehentasun berezia”. Industrialdeen egoera aztertu du Udalak. Zeintzuk behar dituzte enpresek? Zeintzuk hobekuntza egin asmo ditu Udalak industrialdeetan? “Eremu industrial berri bat sortzeko tramiteak bultzatzen ari da Udala erakunde ezberdinekin. Azalduko zeniguke hori gehiago?”**

Alkateak eta udal Gobernuak herriko enprekin bilera ugari burutu ditu azken hilabeteetan beren egoera eta beharrak gertutik ezagutzeko. Espazio falta nabarmena adierazi dute.

Argiztapena eta seinalizazio horizontal zein bertikala hobetuko dira datozen asteetan.

Enpresen espazio falta horri erantzun nahi zaio herriko ehun industrial mantendu eta sustatzeko, horrekin enplegua bultzatuz. Zubi berriarekin egin nahi den eremu antolaketarekin, industrialde berriak sortzeko aukera ikusten dugu eremu horretan.

♦ **Zubia da beste proiektu izarretako bat. Legegintzaldi guztietan aipatzen den gaia da. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ez dute aurrerabiderik eman izan azkeneko hamar urtean. Itxaropentsuago zaudete orain. Zergatik? Zein fasetan dago kontua eta zeintzuk dira hurrengo pausoak?**

Itxaropentsu gaude legegintzaldi hasieratik proiektuari heldu eta egiazko lanketa bat bultzatu dugulako, egungo egoerara egokitutako proiektu bat garatuz. Horrez gain, orain arte bultzatutakoa baino lanketa sakonagoa egin dugu Udalean.

Aurreproiektua aurkeztua eta aztertuta dago erakunde guztietan. Orain, Aldundiarekin elkarlanean, proiektua egikartzeko finantziarioa zehazten ari gara.

Behin finantziarioa lortuta, proiektu definititua idazteari ekingo zaio eta, behin proiektua gauzaturik, exekuzio fasera pasako ginateke.

♦ **Futbol zelaiaren proiektuaren harira. Ospas gain hor egonda, futbol zelaiak beste leku batean eraikitzea hobetsi**

duzue. Zergatik? Zer beste asmo du Udalak Ospas gainerako?

Ospas eta Mañuska Berri, zein herriko gainerako kirol instalakuntzak osagarriak izango dira. Gainera, egun, Ospasen beste jarduera batzuek dute lekua eta horiek sustatzea du jomuga Udalak.

[Futbol zelaia Ospas gainen egitea zergatik baztertu duten galderari erantzuteko Mendaroko futbol zelai berriaren kokapenaren azterketa konparatiboa dokumentua bidali du. Irisgarritasuna, segurtasuna, zerbitzu-aukerak, ingurumen kontuak eta hirigintza kontuak aztertzen dituzte bertan eta hauek dira Ospas-gainerako aukera baztertzeko arrazoietako batzuk: Azpilgoetako plazatik Ospas-gainera 75 metroko desnibela dago. Herri-gunean aldaparen pendiza "onargarria" da, baina landa-lurretan sartzen denean pendiza %10etik gorakoa da. Horri gehitu behar zaio urbanizatu gabeko zatia dela, espaloirik ez duena. "Aukera balego", beraz, irisgarritasun-arauak errespetatuko litzuzkeen trazadura berri bat egin beharko litzateke, baina trazadura hori planteatzea ezinezkotzat jotzen dute. Espaloirik gabeko errepide zatia eta argiztatu gabeko ingurunea izatea dira kontrako faktoreetako beste bi. "Genero ikuspegia ere hartu behar da kontuan, bai eta erabiltzaileak adingabeak izango direla eta eskola orduz kanpo joango direla entrenatzera; neguan, ilunetan". Instalazio berriak zerbitzu sare berria eskatuko luke. Zerbitzu-sare berri horien trazadurak kostu handia dakar, bete beharreko distantziarako, eta bereziki da handia ur-horniduraren sarea osatzea, beste ponpaketa bat eskatzen duelako eta horri mantentze gastuak gehitu behar zaizkiolako. Futbol zelaia Ospasi-gainen egitearen "onura bakarra" da lehen dagoen espazioa aprobetxatu ahal izango litzatekeela, baina, hala ere, aprobetxamendu hori egiteko derrigor esku hartu behar da, belar artifiziala jartzeko eta futbol zelaia bera handitzeko. Horretarako, gaur egungo bidearen trazatua aldatu beharko litzateke eta ondo-

"Ez da futbol zelai hutsa izango. Bai, gainerako diziplinei lekua emango zaie bertan"

rioz lur-mugimenduak eragin. Indarrean dagoen HAPOK, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, ez du aurreikusten dagoen futbol-zelaia handitzea; beraz, beharrezkoa litzateke Ekipamendu-sistema orokor gisa kalifikatuko duen aldaketa izapidetzea].

♦ **Mañuska Berri inguruko lur horiek landa-lurrak dira, beraz hor zerbait eraiki ahal izateko Hirigintza Plan Orokorra aldatu beharko litzateke, ala? Noizko dago hori aurreikusita? Plan orokorrean beste aldaketaren bat egiteko baliatuko duzue aukera?**

Bai. Hirigintza Plan Orokorra aldatu behar da. Momentu honetan eremuaren ikerketa geologikoa egina dago eta orain topografikoa gauzatzen gabilta. Behin eremuaren azterketa guztiak amaituta hasiko dugu prozesua. 2021 ean ekingo zaio aldaketari, azterketa guztiak eremua egokitzen ematen badute.

♦ **"Futboleko jokatzeko dagoen azpiegitura egoki faltari" erantzuten dio proiektuak Udalaren hitzetan. Aurrez, herri ekimenez landu zen beste proiektu bat. Gatik egin bezala futbol eskola sortu nahi izan zuten Mendaron Milan Eskolakoek. Ez zuen aurrera egin. Kontuan izanda, herrian futbol talderik ez dagoela, antzeko aukeraren bati bidea eman nahi dio proiektu honek?**

Ez.

♦ **Udalak herriko kirol eragileekin batzeko asmoa duela jaso du, proiektuaren ezaugarriak elkarlanean defini**

nitutu eta garatzeko. Hortik ondorioztatu behar dugu ez dela futbol zelai hutsa izango? Bidea emango du honek beste kirol espezialitate batzuetakoek, esaterako dantzakoek, egin izan dituzten eskaerei bidea emateko?

Ez da futbol zelai hutsa izango. Bai, gainerako diziplinei lekua emango zaie bertan.

♦ **Azpilgoetan eraikiko diren 86 etxebizitzaren notiziak aparkalekuen inguruko zalantza sortu du sare sozialetan. Zehaztuko zenuke gehiago proiektu hori? Aparkalekuen gaian zer gogoeta edo balorazio egingen du Udalak?**


Proiektua hastapen fasean dago eta oraindik zehaztapenak ez daude finkatuta. Udalak bermatuko du etxebizitza berri guztiak aparkalekua izatea, eta gainera, gainazalean, aparkaleku gehiago sortzea dago aurreikusia herri-tarren erabilerarako.

♦ **Foru funtsetik urrian aurreikusitakoa baino 83.800 euro gehiago jasoko ditu Mendaroko Udalak. Udalaren finantzaketarako albiste ona da. Zertan eragingo du horrek Udalaren aurrekontuan?**

Pandemia egoera honek egunetik egunera aldaketa ugari sortzen ditu eta diru hori sor daitezkeen behar bereziak estaltzeko erabiliko da: bai gizarte ongizate alorrean zein ehun ekonomiko babeste aldera.

♦ **Bada aspaldian herrian bolo-bolo dabilen beste kontu bat: Kutxa erakunde finantzarioak ematen duen zerbitzua. Zer eginbide egin ditu Udalak honen inguruan.**

Udala Kutxarekin harreman etengabe dago: erakundearen eraldaketa batean murgilduta daude, zeina arreta presentziala murriztu eta zerbitzu telematikoak bultzatzea lehenesten ari den. Hala ere, Mendaroko bulegoak zabalik jarraitzen du eta arreta presentziala ematen da, Covid-19ak sortutako egoerara egokituta.



Jose Ramon Cabrera

Iñaki Goitia



Riiiiing! Telefonoak ez du soinu bera egiten deiaren esperoan gaudenean. Riiiiing! Entzumena zorroztu egiten da, tonua ez entzuteko beldur bageunde bezala. Riiiiing! Giharrak paralizatu eta denbora telefonoraino dagoen distantziarekiko alderantziz proportzionala sumatzen dugu. Riiiiing! Paradoxikoki, momentua betikotu egiten da. Riiiiing! Baita garaiz ez iristearen herstura ere. Riiiiing! Halaber, telefonoa hartu ezean bigarren aukerarik ez izateak kezkatzen gaitu. Riiiiing! Baina deia horren garrantzitsua denean, helburua lortze aldera indar guztia biltzen dut, daukadana zein ez daukadana, paisaiarik ederrena miresten banago ere. Riiiiing! Eta bide honetan, odisearik handienez, —Ulises Itakara itzuli zenekoa txiki uzten duena—, telefonoa hartu bezain pronto pertsona horri zor

dizkiodan bi hitzak ahoskatuko ditudala zin egiten diot neure buruari, bestaldean dagoena hitzik gabe uzteko, lehegailu bat desaktibatzen duen espezialista bezala, hain zuzen. Riiiiing! Elkarbizitza bat amesten hasten naiz, zorientasunaren berreskuratzean, bion artean dagoen distantzia gainditu eta telefonoaren asmakizunari esker —ze asmakizun ona telefonoa! Eta ze gizon handia Antonio Meucci!— elkarri emango diogun besarkada luzean. Riiiiing! “Maite zaitut” “Barkatu?” “Sentitzen dut, jauna... izan ere, dei baten esperoan nago...” “Suediar Akademiatik deitzen dizugu; literaturako Nobel Saria jaso duzu. Zorionak!” Telefonoa eskegi dut hitzik esan gabe. Horrenbesteko esfortzua ezertarako! Hariarik gabeko telefono baten beharraz ohartu naiz, bihar bertan erosiko dut bat. Ze asmakizun ona hariarik gabeko telefonoa! Eta ze handia bere asmatzailea, edonor dela ere! Eman diezaiotela Nobel Saria!

“Telefonoa hartu ezean, bigarren aukerarik ez izateak kezkatzen gaitu”

Elgoibarko Udalak 700.000 euro eman zituen 2020an kulturarako

Elgoibarko Udalak 699.430 euro jarri ditu herriko kultur jarduerak sustatzeko. “Elgoibar guztion artean eraikitzen dugu eta 2020an agerian gelditu da lan-kidetzaren garrantzia”, zabaldu du Udalak eta “eragileekin elkarlanean” jarraitzeko konpromisoa agertu du. Kultur arloko elkarteei 33.402 euroko dirulaguntza eman die Udalak eta honakoek jaso dute laguntza: Elgojaitzak (3.200 euro), Egur margo tailerrak (7.215 euro), Eiltgare irrati afizionatuak (650 euro), ESKUZ Eskulan Taldea (3.500 euro), Galiza Etxea (650 euro), Morkaiko Elkartea (2.500 euro), Ongarri Argazkilari Taldea (1.830 euro), Ongarri Zine Kluba (5.800 euro), Sinuöse (4.857 euro), Taupada (3.200 euro). Emudafe Elgoibarko Musika eta Dantza federazioari, berriz, 162.078,05 euroko dirulaguntza eman dio, musika eta dantza hezkuntza sustatzeko ekintzetarako, eta Ignazio Bereziartua musika eskolari 477.757 euroko dirulaguntza eman dio, musika eta dantza hezkuntza, 60 urtez gorakoentzako hezkuntza musikala eta musikoterapia bultzatzeko ekintzetarako.

Julen Zabaletari buruzko argazki erakusketa gaur zabalduko dute

Otsailaren 14an bete zituen Julen Zabaleta *Yulen* marrazkilariak 100 urte, eta horren harira, bere bizitzari buruzko argazki erakusketa antolatu dute Udalak eta Ongarri Argazkilari Taldeak elkarlanean. Erakusketa otsailean zuten inauguratzekoa, baina bertan behera utzi behar izan zuten ekitaldia, Elgoibar eremu gorrian zegoelako. Aste honetan bertan irten da Elgoibar eremu gorritik, beraz, gaurtik aurrera berreskuratuko dituzte orduan bertan behera geratu ziren hainbat ekitaldi, tartean, *Yulen 100 urte* erakusketa. Hilaren 13ra arte egongo da ikusgai, 18:30etatik 20:30etara.

Itoiz musika taldearen inguruko material bila hasi dira Doxa Producciones ekoiztetxeak ikus-entzunezko baterako

1976an sortu eta 1988an desegin zuten Itoiz musika talde entzutetsua. Tarte horretan, 70eko hamarkada bukaera aldera, Elgoibarren ere jo zuten, Pelousse diskotekan, eta aurrez, Itoiz izena hartu aurretik berbenetan ere ibili ziren Indar Trabes izenarekin. Eibarren ere eman izan zituen kontzertuak Itoizek eta irudiak bildu nahian ari dira Doxa Produccionesekoak. “Badakigu sortu zenetik taldeak jarraitzaile ugari izan zituela eta litekeena dela partikularrek bildutako baina argitaratu gabeko materiala edukitzea. Orain arte informazio ugari bildu dugu, baina badakigu oraindik argitara atera ez den materiala egon daitekeela eta material hori lortzea da interesatzen zaiguna, kalitatezkoa izan edo etxekoa izan”, zabaldu dute. Laguntza oro eskertuko dutela nabarmendu dute, eta e-posta bat laga dute harremanetarako: archivo@doxaproducciones.com.

Finantzaketa kolektiborako kanpaina hasi du Jone Arriolak, ‘Larrugorritan’ seriearen lehen atala grabatzeko

Larrugorritan fikziozko seriearen lehen atala grabatzeko dirubilketa kanpaina hasi dute Jone Arriola elgoibartarrak eta haren lantaldeak (itsulapikoa.eus). Gazteei zuzendutako euskarazko fikziozko seri bat da *Larrugorritan*, gazteek egunerokotasunean bizi dituzten gatazkak eta zalantzak jorratuko dituen. 20 urte bueltako bost gazte dira protagonistak, lau neska eta mutil bat: Ena, Niko, Lara, Ali eta Mai. Emakumeek, baina, protagonismo handia hartuko dute istorio guztian zehar, azken batean emakume eta gizonen arteko estereotipoak hautsi eta emakumeen errealitatea benetan den modukoa erakutsi nahi dutelako sustatzaileek.

Eta istorio horren lehen atala grabatzeko hasi dute orain finantzaketa kolektiborako kanpaina. Grabazio lanak apirilean hasi nahi dituzte, eta horretarako, 10.000 euro bildu nahi dituzte, baina gutxienez 3.500 eurora iritsi nahiko lukete sistema honen bidez. Proiektua gazte hasiberri eta profesionalen arteko elkarla-



nean oinarritzen da. Lantaldeko gehienak emakumeak dira, ezin bestekoa ikusten dutelako baldintza hori zabaldu nahi duten mezua zabalatzeko.

Larrugorritan, hala ere, ez da serie bat huts-hutsean: “Gazteon ahotsak entzun eta zabalatzeko bitartekari bat da. Sare sozialen bidez gazteentzako edukiak sortuko ditugu, hala nola, memeak, zozketak edota ikus-entzunezko eduki laburrak”, zabaldu dute.

Haundik garaipen batekin hasi du berriro liga txapelketa

au hilabeteko etenaren ostean, Haundik ligako bigarren partida jokatu zuen domekan Arrasaten, Mondra taldearen aurka, eta garaipena eskuratu zuten elgoibartarrek. Eneko Basurtok sartu zuen partidako gol bakarra, lehen zatiaren hondarrean. Mondrak ahaleginak egin zituen bigarren zatian berdintzeko, eta lortu zuten baloia sare barruan sartzea ere, baina epaileak baliogabetu egin zuen jokoz kanpo sartutako gola izan zela-eta. Garaipenaz gainera, berri on gehiago laga zituen Mojategin jokatutako neurketak, jubenil mailako hiru jokalarik debuta egin baitzuten Haundirekin: Markel Yudegok, Ibon Makazagak eta Luken Agirregabiriak, hain zuzen ere. Haundik sei puntu ditu sailkapenean, lehen jardunaldian Aloña Mendiri irabazitako partidakoak kontuan hartu baitituzte. Hurrengo jardunaldian atseden hartzea egokituko zaio eta martxoaren 7an jokatuko du aurreneko partida Mintxetan, Debako Amaiak Bat taldearen aurka. Publikorik gabe jokatuko dituzte partidak.



Arg.: Alfredo Garcia

Sailkapenean gora egin du Gaurvek

Jarraian lortzen duen hirugarren garaipena eskuratu zuen Gaurve Asesores eskubaloi taldeak Kantabrian, Loizaga Castro Urdiales taldeari 21-28ko emaitzarekin irabazita. Hain justu, sailkapenean postu bat gorago duten taldea da. Otsailan lortutako hiru garaipenei esker 11. postuan dago orain Gaurve. Bihar Ermuko Errotaberri taldearen aurka jokatuko dute Olaizagan (19:00). Alcorta FG taldeak Avefor Huesca taldeari bisita egingo dio zapatuan. Gizonezkoen taldeak 23-27 galdu zuen azken jardunaldiko partida.

Deba ibaia, piraguisten jolasleku



Bergarako Beti Busti taldeko piraguistek Deba ibaiko korronteetan behera eta gora egiten zituzten maniobreakin txundituta geratu ziren, otsailaren 20an, Elgoibar eta Eibar arteko bidegorrian pasiaran zebiltzan hainbat herritar. Beti Busti klubekoak urte amaieran ere jaitsi ziren Deba ibaian behera, birritan, abenduaren 30ean eta 31n. Orduan ere leku beretik abiatu ziren, bidegorritik, Eibarrera bidean lehen zentral elektrikoa dagoen paretik. Orduko hartan, baina, euria etengabe ari zuen eta ibaia oso hazita zegoela aritu ziren korronte azkarren artean. Herrigunetik igaro zirenean ikusmina sortu zuten, Elgoibarren ez gaudelako ohituta halakoak Deba ibaian ikustera, eta piraguistok ikus zitezkeen bideoak barra-barra zabaldu ziren sare sozialen bitartez.



LANA.....

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia eta erreferentzia onak dauzkat.

☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz eta titulazioa daukat.

☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka.

☎ 643 772 326

Adinekoak zainduko nituzke, orduka.

☎ 620 712 478

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Orduka, eta gabez ere bai. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut.

☎ 683 580 665

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Baserrietan ere bai.

☎ 602 407 338

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Urteetako esperientzia daukat. Etxeak, lantegiak edo bulegoak garbitzeko ere prest nago.

☎ 632 238 016

Eskaerak

BPXport enpresak lagun bat behar du Olai-zaga kiroldegiko eta Mintxeta kirolguneko garbiketa lanak egiteko. *Elgoibar@bpxport.es* helbidera idatzi behar da.

Adinekoak zaintzeko pertsona bat behar dugu, etxeko langile moduan lan egiteko.

☎ 675 706 139

Taberna batek janaria etxeetara eramateko langileak behar ditu.

☎ 680 489 416

GARAJEAK.....

Garaje bat hartuko nuke alokairuan Elgoibarraren epe luzerako.

☎ 643 372 825

Garajea erosiko nuke Bernardo Ezenarro kalean, Eroski azpian.

☎ 666 269 636

BESTELAKOAK.....

Bizikleta estatikoa salgai. Gutxi erabilia; berri-berri dago. 50€.

☎ 645 729 230

Bost hektarea inguruko lursaila salgai Urnobil-tzan. ☎ 678 826 986

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€ . Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€ . Bestelakoak: 8€ . Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoaldea Euzko Administratzaileen Kontaileko Batzordea

72 etxez osatutako blokea da gure komunitatea, eta lehendakariak aspaldi aurkeztu zuen eguzki-plakak instalatzeko proiektua. Jabeen Batzarra antolatu zuten gaia lantzeko, eta oso jabe gutxiak parte hartu zuten, baina bertaratutakoek ontzat eman zuten proposamena. Jakin nahi nuke garrantzi horretako gai bat jabe gutxi batzuek adostu dezaketen.

Legeak energia-hornidura berriak eskuratzeari buruzko erabakiak hartzeko modua arautzen du. Zehazki ezartzen du erabaki horiek jabe guztien herenak hartu ahal izango dituztela, batzarrera joan edo ez, eta partaidetza-kuotetan portzentaje bera izatea. Bertaratu ez direnek akta jakinarazten den egunetik hasita hogeita hamar eguneko epea izango dute desadostasuna adierazteko. Jabeen isiltasuna positibotzat jotzen da, hau da, akordioaren alde hartzen da. Zehaztu behar dugu komunitateak ezingo dituela behartu aldeko botoa eman ez duten jabeak instalazio edo mantentze gastuak ordaintzera. Aurrerago zerbitzu hori eskuratu nahi badute, horretarako aukera izango dute, baldin eta beren garaian zegokiena gehi legezko interesak ordaintzen badituzte.

Ondorioa: kontuan hartu behar da, proposamen horrek jabeen eta partaidetza-kuoten hiru bostenen babesa lortuko balu, jabe guztiak komunitatearen erabakiari lotuta geratuko liritekeela, haien botoa edozein izanda ere. Beraz, guztiek ordaindu beharko dituzte konzertu horren ondoriozko kuotak. Instalazio hori elementu komun bihurtuko da, eta komunitateari dagokio mantentzea.



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2




Argazkiak eguztzen eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Maia-len!** Asteartean 9 urte! Oso ondo pasa zure egunean! Patxo bat etxekoan partez.



7 belarri tirakada jasoko dituzu gaur, **Ekain!** Zorionak eta muxu handi bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Duna,** 14 urte beteko dituzulako. Aitaren, aitaitta Joseren eta amama Carmenen partez.



Zorionak, **Nora!** Asko maite zaitugu! Marimar, Julia eta Eduren partez.



Zorionak, **Ixaso!** Familiako guztion partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Hodei,** asteartean 6 urte bete zenituelako. Segi horrela, txapel-dun. Muxu handi bat etxekoan, eta bereziki, Nahiren partez.



Zorionak, **prinzesa,** zure 14. urtebetetzean. Muxu potolo bat etxekoan, eta bereziki, Manexen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€



ZERBITZU BERRIA!

LAGUNAK
colchoneria textil hogar

Mota guztietako arropa konpontzen hasi gara. Ba al duzu konpondu beharreko arroparik? Ekarki, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurrira.

Jantzigintzarako makina bereziak ditugu, edozein ehun konpondu ahal izateko:

PUNUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOTAK ETA KULOTEAK, LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com

EXPRESS ESKAINTZAK!

5-8B SERIEKO SAUBER ARROPA LEHORGAILUA



399 €

- Lehortze perfektua eta zehatza, zure arropa ahalik eta hobekien zainduz.
 - Erraz erabiltzeko LED display-a: hautatu azkar eta intuitiboki zure lehorgailuko programak.
- Barneko argiztapena: ikuspen osoa. ● Hasiara geroratu 24 ordura arte.
 - 16 lehortze-programa: une bakoitzean behar duzuna aukeratu.
 - Egitura bakarreko danborra, zure arropa delikatuena aparteko zainketa izan dezan. Lehortu bitartean, zure ehun guztiak babesten ditu.

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

26 BARIKUA

16:30 Odol ateratzeak Elgoibarren, Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

18:30 'Yulen 100 urte' erakusketa. Udalak eta Ongarrik antolatuta, hilaren 13ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan.

19:00 Bideo foruma: 'La chica del tren'. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

27 ZAPATUA

09:00 Hil bukaerako feria. Basartesoro-eta, Nagore Dorronsoro eta Lizagasar ekoizleen produktuak jarriko dituzte salgai, Kalebarren plazan.

3 EGUAZTENA

18:00 Hausnarketa saioa: Haizeak antolatuta, Autozaintza Emozionala. Zoom bidez.

19:00 Filma: 'Volver a empezar'. Herriko Antzokian.

4 EGUENA

19:00 Dokumentala: 'Zauriak'. Herriko Antzokian.

5 BARIKUA

17:30 Odol ateratzeak Mendaron, ikas-tolan. Txanda hartzeko egunean bertan deitu: 688 780471

Zinea (Herriko Antzokian)



'Vacaciones contigo... y tu mujer'

26 barikua: 19:00

27 zapatua: 19:00

28 domeka: 19:00

1 astelehena: 19:00



'El pequeño vampiro'

28 domeka: 16:30



'Adam'

(Ongarri zinekluba)

3 eguztana: 19:00

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

26 BARIKUA	27 ZAPATUA	28 DOMEKA	1 ASTELEHENA	2 MARTITZENA	3 EGUAZTENA	4 EGUENA	5 BARIKUA
Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti Arriola	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez * Fernandez
Iluntzean Yudego	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384


Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)
943 201 912



Lourdes Uriguen Sodupe

2021eko otsailaren 18an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Agur ama, agur amama,
sekula ez adiorik.**



IV. URTEURRENA

Jesus Maria Etura Echeverria

2017ko martxoaren 1ean hil zen, 89 urte zituela.

**Denborak samina arintzen omen du,
baina zure oroitzapen goxoa ezerk ez du lausotuko.**

Sendia



XIV. URTEURRENA

Ramon Untzilla Aranberri

2007ko otsailaren 27an hil zen, 42 urte zituela.

Maitasunez, beti gure bihotzetan.

Etxekoak



Desiderio del Hoyo Amigo

"Desi"

2021eko otsailaren 19an hil zen, 78 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Zeruko izarren artean aurkitu duzu tokia,
lurrean utzi dituzun izarrei emateko argia.
Zure indarrak emango digu benetako bizia,
egunsentiarekin batera jarraitzeko bida.**

Zure familia





ELGOIBAR STOCK KALE AZOKA



Martxoak 5-6
10:00-13:00 eta 17:00-20:00



Postuak establezimendu atarietan egongo dira.



Parte hartzeko eta informazio gehiago eskuratzeko deitu 943 747 301 zenbakira.